

Julen Rosillo:

"Ziklo-krosa nahiago dut errepidea baino"

Pasa dan abenduaren 8an, ziklo-krosak urteroko hitzordua izan zuen Ermuan. Ziklo-kroseko Challengearen zirkuitu barnean dagoen lasterketa. Bertan aritu zen 19 urte betetzear dagoen ermuar txirrindulari gazte hau.

Construcciones Baltar taldean ari da eta bostgarren aldiz jarraian, lehen ermuarra izan zen sailkapen nagusian. 23 urtez azpikoen mailan aritu da aurten.

-Zer moduz txirrindulari denboraldia?

Orain arte errepidean ibili gara. Ez da denboraldi ona izan. Duela 2 urte neumonia izan nuen eta geroztik ezta-rriko anginekin larri ibili izan naiz. Aurten ere 2 hila-bete eskas aritu naiz lehian.


-Ziklo-krosean oster fin zabilta...

Betidanik ziklo-krosa nahiago izan dut errepidea

baino. Eroso sentitzen naiz. Ermuko lasterketan ondo ikusi nuen nire burua eta aurreneko ermuarra izatea lortu nuen.

-Errepidea gogorra izan arren ziklo-krosa ere gogorra da...

Teknikoki batez ere. Oreaka, bizikleta erabiltzeko era ezberdina da. Indarra behar da, bizkortasuna, baina batik bat bizikleta



teknikoki kontrolpean izateko gaitasuna.

-Ziklo-kros denboraldia noiz amaitzen da?

Urtarrilaren 20an amaituko zaigu.

-Construcciones Baltar taldean zabilta...

Errepide eta ziklo-krosean ari garen taldea 7 txirrindulari osatzen dugu.

-Ordu asko eskaintzen dizkiozu txirrindularitzari?

Adin honetan edo profesional mailara ematen da jautzia edo bertan behera utzi beharra daukazu guztia. Eskatzen duen ahalegina orde, profesional mailakoa da. Ikasketak ere egiteko tarte gutxi uzten du horrek.

-Lehia gogorra da?

Ikaragarria. Maila oso ona daukagu Euskal Herrian.

-Aukerarik baduzu jautzia egiteko?

Errepideko txirrindularitza utzi egingo dut. Datorren urteari begira mountain-bikean aritu nahi nuke. Udaberri eta uda sasoian mountain-bikeko zirkuituan parte hartu eta neguan ziklo-krosa.

-Halare txirrindularitza mundua uzteko asmorik ez beraz...

6 urte ditudanetik nabil txirrindularitza munduan. Geroztik makina bat lasterketa, lehia egingo ditut. Txirrindularitzan luzaro segi nahi nuke.

Asier Ibaibarriaga



URRETA

burdindenda

✱ Etxea

✱ Tresneria

✱ Brikolaia

✱ Rielak

✱ Giltzak

✱ Zerrailgintza

✱ Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUUA

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1

943 17 60 52